

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBA
EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (A eredua)
2014/2015 IKASTURTEA

Bi aukeretatik bat hartu behar duzu (A edo B)

A AUKERA

Orduak ihes egiten dutenean

Gure amonak beti esaten zuen hogei minutu baino gehiago ez zitzaiola Aita Santuari berari ere itxaron behar. Baina, egia esan, Euskal Herrian nahiko malguak gara puntualtasun faltaren aurrean. Ohituta omen gaude ia ordu-erdi itxaroten, eta haserrealditxoren bat edo beste baino ez digu eragiten zain egon beharrak.

Eta ez gara bakarrak: Espainian, Grezian eta Hego Ameriketako herrialde askotan, batez beste ordu-erdi itxaroten du jendeak. Mexikon, esaterako, gizalege onekoa omen da jatetxera berandu heltzea. Alemanian hamabost minutu itxarotea normalizat jotzen da. Beste muturrean ingelesak daude, haiek baitira puntualtasunaren ikur. Oso gaizki ikusten dute hitzorduetara berandu iristea. Baita Txinan ere. Bertan, bost minutu berandu helduz gero, izen ona galtzeko arrisku handia dago.

Betebeharrak garaiz egiteko diziplina da puntualtasuna: lan-hitzordu bat dagoenean, lagunekin kafetxo bat hartzeko geratu garenean, lan bat entregatu behar denean... Gauzak esandako orduan betetzea erraza dirudi, baina jende askok ezin izaten du ordua errespetatu. Denok ezagutzen dugu garaiz iristen ez den pertsonaren bat. Agian gu geu gara horietako bat. "Barkatu, berandutu egin zait", "ez naiz konturatu hain berandu zenik", "garaiz nentorren, baina batekin topatu naiz eta..." Horrelakoak esaten dituzte korrika gerturatzen ari direla. Baina nahiz eta aitzakiak behin eta berriro errepikatu, barkatu egiten zaie.

Dena den, hitzordu guztiak ez dira berdinak. Batez ere, hitzordu ez ofizialetara heltzen da jendea berandu, hau da, lagunarteko bileretara edota familiarekin dauzkagun hitzorduetara. Baina lana eskatzeko elkarrizketaren bat daukagunean, medikuarenera joan behar dugunean, gure nagusiarekin bileraren bat daukagunean... garaiz iristeko modua egiten dugu guztiok.

Dudarik gabe, puntuala izateak abantaila anitz ditu. Batetik, puntualtasuna zer den ikasten da; inguruko bizimodua ere atseginagoa da garaiz helduz gero, besteek zain egoteko beharrik ez baitute. Bestalde, egunerokoan ordena eta ohiturak hartzen ikasteko aukera dago, eta jendeak puntuala ez den pertsonarengan galdu duen konfiantza berreskuratzen du. Ardura erakusteko aukera ere badago eta hitzordu guztiak garrantzia dutela ikasten da. Ezagutzen ez dutenen aurrean ere itxura ona ematen du garaiz iristen denak, gizabide oneko pertsona dela eta besteak errespetatzen dituela erakusten baitu.

Noelia Lataburu, *Ikasbil*

GALDERAK (OHARRA: Parentesi artean dagoen zenbakiak zein lerrotan dagoen adierazten du.)

- 1.- Aditzak iraganean jarri: gaude (3), ez digu eragiten (3), ikusten dute (8), barkatu egiten zaie (15), dauzkagun (17). (1 puntu)
- 2.- Testuingurua kontuan hartuz hitz hauen sinonimoak eman: esaterako (6), heltzea (6), orduan (11), gerturatzen (15), anitz (20). (1 puntu)
- 3.- Berridatzi esaldi hauek (1 puntu):
 - bost minutu berandu helduz gero (9). (_____ ba-...)
 - nahiz eta aitzakiak behin eta berriro errepikatu (15). (_____ arren)
 - lana eskatzeko elkarrizketaren bat daukagunean (17-18). (_____ ba-...)
 - besteek zain egoteko beharrik ez baitute (21). (_____ ...-lako)
- 4.- Testuaren ulermena. Herrialde guztietan ohitura bera al dago jendeari itxoiteko orduan? Zergatik? (1 puntu)
- 5.- Testuaren ulermena. Oro har, hitzorduak direla eta, noiz iristen gara garaiz eta noiz berandu? (1 puntu)
- 6.- Testuaren ulermena. Zein dira puntuala izatearen alde onak edo onurak? (1 puntu)
- 7.- Idatzi testuari edota gaiari buruz gutxienez 150 hitz. (4 puntu)